

Udal ordenantzak

Aurten ere, urtero bezala, gobernu taldeak (EAJ-EA-IU) zergak igoko ditu bere irizpideen arabera. Ez dira gai izan irizpide horiek azaltzeko, eta agerian utzi dute lan egiteko gogo gutxi dutela eta ideia berriak eskaintzeko gaitasunik ez dutela.

Zergak eskaintzen diren zerbitzuekin lotuta joan behar direla defendatu du beti Talde Independentiak. Gastatzeko lehenengo batzen jakin behar dela adierazi dugu beti. Gobernu talde honek txarto gastatu du, eta dirua xahutzen du. Baina ez hori bakarrik; beti bide bera erabiltzen du dirua batzeko: zergak. Aurten %4 igoko dituzte zergak, baina KPI %3 bakarrik igoko da.

Bitartean, Talde Independentiak jakinarazi behar izan zuen Eroskik ez duela ordenantza betetzen zaborren tasaren inguruan. Gure jakinarazpenaren ostean, gobernu taldea Eroskirekin harremanetan jarri zen, irregulartasuna zuzentzeko asmoarekin. (Zorra 120.000 eurokoa da).

Era berean, Iberdrola, Telefonica, Euskaltel eta Naturgas enpresek —beste batzuk ere badira— lurzoruak eta zorupeak erabiltzeagatik ordaintzen dutena eta ordaindu beharko luketena ez datoz bat; kopuru irigarriak ordaintzen dituzte. Finean, lan egitea dakarren edozer gauzak atzerakada ematen die. Baina zertarako arduratuko dira enpresa handiek ordaintzen ez dutena estaltzeko herritar arruntak hor baldin badaude?

Aurrekontuen aldaketa

Gobernu taldea osatzen dutenen gaitasun eza eta aldrebeskeria agerian uzten duen beste gertaera bat.

2006ko abenduaren 4rako aparteko udalbatzarra deitu zuten urte horretako aurrekontuak aldatzeko!

Abenduaren 4rako izan beharrean hil bereko 28rako deitu bazuten inozentada zela pentsatuko genukeen. Aurtengo aurrekontuetatik **907.000 €** gastatu gabe geratu dira. Bai, ondo irakurri duzue. Diru kopuru hori erabili gabe geratu da hainbat arrazoirengatik, eta hori aurrekontu horiek beraiek onartutakoak izanda.

Publizitate aldera oso ondo dago esatea zabor-ontziak lurperatuko dituzula, esaterako; baina gero ez da egiten, eta egiten ez denez, etengabeko diru xahutzeak estaltzeko erabiltzen da diru hori. Badakizue zenbat diru geratu den soberan arrazoi horrengatik? **68.000 €**, baina zabor-ontziak espalioen gainean daude oraindik. Diru hori gero erabiltzen dute, San Blas eguneko ferian aurreikusitakoa baino 18.000 euroak ordaintzeko eta Matienako jaietan behar baino gehiago gastatu ziren 45.000 euroak estaltzeko, beste gauza batzuen artean.

Bitxia ere bada, baina Matienako jaiak gazteek antolatzen zituztenean, aurrekontua gainditzen zuen euro bakarrarengatik kontuak eskatzen zizkieten gobernu taldekoek; baina orain jaiak beraiek antolatzen dituztenez, aurrekontuetan jasotakoa baino antzinako 8 milioi pezeta gehiago gastatu dituzte. Lotsagarria.

Azken baten, egin gabe utzi dituzten inbertsioetako dirua botoak erosteko egin duten eta legealdia amaitu arte egingo duten gastua estaltzeko erabiliko dute.

Etxebizitzak

Espanian Europako Batasuneko beste edozein lekutan baino garabi gehiago erabiltzen ari dira eraikuntzarako, baina, aldi berean, Abadiño da gutxien eraikitzen den herria. Eta are okerrago, etxebizitza sozialik inoiz eraiki ez den udalerrri gutxienetako bat da. Botere ekonomikoak kontrolpean izan du EAJ, lurrekin espekulatzeko asmoarekin.

Egun, Abadiñon dagoen etxebizitza premia ezagutzeko beste azterketa bat egiten ari dira. Zertarako egin zuten lehenengoa? Badirudi Muntzaratzeko pelotazoa arrazoitu beharra dagoela. Gobernu taldeak 450 etxebizitza egiteko proiektua prestatu du Muntzaratzeko, baina etxebizitza premia ezagutzeko lehen azterketaren arabera, 250 behar dira bakarrik. Nor engainatu nahi dute? 450 etxebizitza horiek baino gehiago behar izango dira ziurrenik Abadiñon, baina ez dira eraiki behar beraiek nahi duten lekuan bakarrik.

Hori guztia aldatzeko prest gaude maiatzetik aurrera; zuen laguntzarekin, jakina.

Erabilera anitzeko pabiloia Matienako eskoletan

Talde Independienteak urteak darama proiektu hori aldarrikatzen, baina gobernu taldea ez da lanean hasi proiektua gauzatzeko eskatuz gurasoak sinadurak batzen hasi ziren arte. Herritarrek behartzen dituztenean bakarrik mugitzen dira, eta gutxi falta da udal hauteskundeetarako.

Udalerrri honek behar bezalako gobernu taldea izanez gero, behin betiko proiektuak egina beharko luke. Ez da ahaztu behar EAJ-EAren azken hauteskunde-programan proiektu horretaz hitz egiten zela, eta beraiek agintean dagoen taldeko kideak dira. Proiektua ez da gauzatu, eta are okerrago, horren inguruan bueltak eta bueltak ematen ari dira. Batzuk esaten ari dira proiektua prest dagoela eta obrak hastea baino ez dela falta, baina hori gezurra da; denborak aurrera egiteko eta azalpenik eman behar ez izateko gezurra baino ez da. Lau hilabete bakarrik geratzen zaizkion gobernu talde batek gero beste batek gauzatuko dituen aurrekontuak prestatuko dituela burutik pasatzen zaio norbaiti?

Muntzaratzeko aterpea eta autobus geltokia

Azkenean heldu da Olentzero, barkatu, heldu dira hauteskundeak, eta obra usaina dago; obra horiek urteetan atzeratu dira, eta horren erruz, herritarrek beren bizia arriskuan jarri behar izan dute makina bat aldiz, errepidea gurutatzen zuten bakoitzean. Esan dugun bezala, udal-hauteskundeak gainean daude, eta gogoan izan behar dira azken jarduerak. Gezurra ematen badu ere, urtero bezala ergeltzat hartzen gaituzte, jadruera horiek zerbaitetarako balio dutelakoan. **Heldutasun apur bat izan, sasi-politikook!**

Kaleak, zutoinak, zakarrontziak eta bestelakoak

Beste gauza batzuen artean, oinezkoentzako guneak trafikotik bereizten dituzten zutoinak aldatzen ari direla ikusten ari gara egunotan. Kaleetako zorua konpondu edo aldatu gabe zutoin horiek jartzeko gustu txarra eduki beharra dago. Matienako alde zaharreko kaleen egoera lotsagarria da; zuloz beteta daude, eta, euria egiten duenean, igerilekuak dirudite. Egun, inguru horretako eraikin gehienak berritzen ari dira, auzoaren itxura hobetzeko asmoarekin; hala ere, gobernu taldea utzikeriarekin jokatzeko ari da Udalari dagozkion gaietan.

Zabor-ontziak

Konturatuko zinetenez, zabor-ontzi batzuk eta beren kokapena aldatu egin dituzte. Hori hirigintza-batzordean aztertu gabe egin zuten, eta, beraz, gutxiengoan dauden taldeen parte-hartzerik gabe egin zuten, eta horien artean gure taldea dago. Gure ideia aurkeztea gustatuko litzaiguke, guztien artean eztabaidatua izateko, baina ezin izan da egin. Orain arazo latz batekin egin dugu topo: kokapen berriarekin haserre dauden herritar batzuk zabor-ontzien kanpoan uzten dituzte zakarrak, osasungarritasun arazoak eraginez. Are lotsagarriagoa; Muntzaratzen gertatzen den bezala, zabor-ontzi batzuk kamioiak lan egiteko moduan daude jarrita, baina dauden moduan, herritarrek ezin dituzte zakarrak zabor-ontzi barruan utzi.

Beste behin, gauzak sakon aztertu gabe egiten dira, eta horren eraginez, gure auzoek hirugarren munduko gero eta antz handiagoa dute. Eta hori guztia agintean daudenei esker: beren burua ahalik eta ekitaldi gehinetan agertzeak herritarren benetako arazoak konpontzeak baino gehiago kezkatzen dituen mailarik gabeko politikariak.

Udalaren egoera

Alkatea eta bere bazkidea demokrazian oinarritzakoa dena ukatzen jarraitzen dute: ez digute uzten gure kezkak azaltzen eta ezin ditugu beren jarduerak kontrolatu, hirigintza-batzordea ez delako hilabeteetan bildu. Horrek helburu bakarra dauka: guk zuei kontatzea nahi ez duten hori ezkutatzea. Eskerrak gobernu talde honi negu bat bakarrik gelditzen zaiona.

Salaketa epaitegian

Azaroaren 3an eta 6an Alkate jauna eta Talde Independenteko bozeramaile Jose Luis Navarro jauna epaitegitik pasa ziren, deklarazioa emateko. Lehenengoa inputatu gisa, eta bigarrena salaketa jarri zuena bezala, Talde Independentearen izenean. Alkatearen kontrako auziak aurrera jarritzen du. Alkatearen abokatuak kasua artxibatzeke eskatu zuen, baina horren aurrean, dokumentu gehiago aurkezteko aukera eskaini zigun epaileak.

Urte berri on!